En Legazpi mostró una personalidad abierta y campechana y nos comentó, en su segunda visita, que andaba centrado, por aquel entonces, en el estudio de la figura femenina, sirviéndose para ello de modelos.

El mural cubista que albergaba el desaparecido cine Eslesa era obra suya. Una vez más, la ignorancia se erigió sobre la cordura.

Imágenes para el recuerdo de la Rondalla Alaitasuna

A raíz de la recogida de datos que hemos llevado a cabo sobre la figura de Miguel Ángel Álvarez, hemos tenido la suerte de contar con Julián Armendariz, quien nos ha facilitado fotografías de la entonces recién formada Rondalla Alaitasuna posando ante el mural que el pintor realizó para el cine Eslesa. Se trata de fotografías en blanco y negro tomadas por el fotógrafo legazpiarra Santi Gabiria.




RONDALLA ALAITASUNA, CINE ESLESA, 3 ENERO 1964

1 - Víctor Porras, 2 - Pablo Martín, 3 - Cecilio Godoy, 4 - Arturo Martínez, 5 - Julián Armendariz Saralegi, 6 - Epifanio Bastarrika, 7 - Jose Ramón Iriondo, 8 - Andrés Enrique, 9 - Jose Ángel Tovio, 10 - Jose Luis Vega, 11 - Miguel Mari Armendariz Larunbe, 12 - Jesús J. Gordo, 13 - Pedro López, 14 - Eladio Sánchez, 15 - Jesus M^a Gurrutxaga, 16 - Jose M^a Zudaire, 17 - Ramón Vila, 18 - Jose Antonio Agirre, 19 - Bautista Armendariz Larrea, 20 - Julián Armendariz Larrea, 21 - Teodoro Casales, 22 - Rakel Armendariz Larunbe, 23 - Beatriz Doman, 24 - Ester Gordo, 25 - Jose Antonio Yeregi, 26 - Arantxa Ibarreta, 27 - Lupe Larrañaga, 28 - Ander Kortaberria, 29 - Ignazio Arrieta.



De izquierda a derecha: Epifanio Bastarrika, Ester Gordo, Jesús J. Gordo, Ander Kortaberria.



Aio, Txantxangorri

Jose Luis Uribetxeberria elur artean hil zen lehengo azaroan. Irazola baserriko artzain honi Urbiak ematen zion bizipoza

Felix Ibargutxi Otermin



Jose Luis Txantxangorri. © Urbiako Fonda.

Azaroak 20, osteguna. Elurtuta dago Urbia eta arratsalde horretan elur dezente egiten ari da, lehengoaz gain. Artzain guztiak herrira jaitsita daude aspalditxotik, 'Txantxangorri' esaten diotena izan ezik. Legazpiarrek ondo ezagutzen dute Jose Luis Uribetxeberria 'Txantxangorri', Irazola bere baserria Gabiriako partean egonda ere, Legazpin ibiltzen baita gehienbat, eta hemen ditu lagun gehienak.

Ostegun arratsaldea eta etxean haren berririk ez. Irazolan bera bakarrik bizi da, baina izeba batek, Tere Uribetxeberriak, eta beronen senar

Rafa Guerreirok, asko laguntzen diote; esate baterako, egunero igotzen dira hara, dela otordua prantatzeko, dela arropa garbitzeko, dela baserrian konponketaren bat egiteko... Pentsatzen zuten Jose Luis arratsaldean azalduko zela bere artaldearekin, Katabera eta Brinkolatik pasata, eta Terek porru-patatak egin ditu. Badira ordu batzuk ilundu duela eta 20:30ean Tere eta Rafaren seme Carlosek Ertzaintzari deitzen dio. Berak ondo daki zer egin behar den, luzaroan Sos Deiak-en egin baitu lan. Artzainaren anaiak ere (bata Legazpin bizi da, bestea Oñatin) ikaratuta daude.

Gau horretantxe, ertzain batzuk oinez abiatzen dira Urbia aldera, eskuan linterna indartsua eta oinetan raketak jantzita. Jose Luisen txabolaino iristen dira, ondo kostata. Atea itxita dago eta barruan inor ez. Orduan, goizaldeko 1:45ean, Carlos Guerreirori deitzen diote. Denak okerrenea pentsatzen jartzen dira.

Hurrengo egunean, ostirala, argitzen duenean Ertzaintzak helikopteroa bidaltzen du. Oskarbi dago, eguraldi aproposa bilaketa lanerako. Azkar topatzen dute artaldea, Artzanburu mendi azpian. Txakurra ere ikusten dute airetik. Luk (txakur arra, Gorbeia arrazakoa), hantxe dago, bere lana egiten, ardiak zaintzen. Eta Jose Luis?

Gizona hurrengo egunean, larunbata, aurkitzen dute oinez ari diren batzuek. Goizeko 11:00ak aldera izan da. Gorpua elur-geruza mehe baten azpian dago. Abisatzen diote Ertzaintzari eta helikoptero batek eramaten du, Tolosako futbol-zelaian lur hartzen duelarik.

Arriskuan jarri, beti azkena jaisten

"Txantxangorrik" 77 urte zituen. Harro zegoen bera zelako beti Urbiatik alde egiten azkena. Bai, urtero horixe bilatzen zuen: azkena izatea.

Bezperan abisatu zioten elurte handia zetorrela, baina hurrengo egunerako utzi zuen. Eta, itxura denez, hurrengo egunean, eguraldi pe-tralaz gain, denbora dezente eman zuen artal-dea batzen. Kataberatik behera bueltatu ohi zen etxera, eta egun hartan, halako elurteare-kin, oso-oso urruti egon Katabera.

“Beste urte batean ere badakigu larri ibili zela, elurra zela eta. Orduan zer egin zuen? Arantzazu-
ra jaitsi”, esan zigun izeba Terek. “Baina aurten ez genekien zertan ari zen Jose Luis; besteetan deitzen zigun, aurten batere ez”.

Jose Luisek bizia arriskatu zuen eta bizia galdu. Heriotza gertatu eta handik pare bat hilabetera, aurtengo urtarrilaren 17an, bertso-saioa izan zen Tolosan, Atariak antolatuta. Andoni Egañari gai hauxe ipini zioten, bai baitzekiten hartu-
emana eduki zuela Jose Luisekin, eta zarauztar txapeldunak honela amaitu bertsoetako bat: *Hik gaur egin behar zena / hor utzi huen biharko. / Askori entzun zioat / zeren zai zegon beherako. / Hik erabakitzen huen / gure logikatik kanpo, / heure buruaren artzai / bakarra heu hintzelako.*

Bitartean Brinkolako Pello Agirrezabalen argazki batzuk proiektatu zituzten, non ikusten baitzen ‘Txantxangorri’, Andoni Egañari bidea erakusten Andraitz aldera, bertsolariak 2003an Zegama-Aizkorri maratoia egin zuenean. Adis-
kide ziren, Egaña eta Sebastian Lizaso urtero

azaltzen baitziren Urbiako Tontor txabolara la-
gunarteko bilkura egitera.

Hileta-elizkizuna Gabiriako parroki elizan egin zioten. Egun haietan asko zabaldu zen bideo bat, Brinkolako Pello Agirrezabalek prestatua, Eguzkitza baserriko Santi Ugarteren bertso honekin: *Gaur goizean etorri zaigu / zain genden notizia. / Artzai txoriak galdu omen du / mendi erdian bizia. / Dudarik ez da belar motzetan / zegoela ikasia. / Nahiz eta ondo hark ezagutu / Aizkorri eta Urbia / ekaitz txar batek eraman digu / Txantxangorriren argia.*

Oso pertsona ezaguna zen ‘Txantxangorri’. Irazo-
la baserrian jaioa, lau anaietan zaharrena. 77 urte zituen. Baserri hori Gabiriako parte da, baina horko familiek beti Legazpin egin izan dute bizi-
modua. Aita, Damaso, Papeleran jardun zen.

Jose Luisek, soldaduskatik etorri eta gero, urte gutxi batzuk egin zituen Patrizioeren fabrian, eta orduan erabaki artzaintzatik aterako zuela bizimodua.

Bazekien zer zen ardiak zaintzea. Aitona, Antolin Uribetxeberria, 1920ko hamarkadan iritsi zen Irazo-
lara, Aretxabaletako baserri batetik. Hortik kanpora-
tu egin baitzuten, alokairu-epea amaituta. Behin Irazolara etorrira, itzain hasi zen, idiekin basoetako egurra ateratzen zuelarik. Artzaina ere bazen eta, baserri honetara etorri eta gero ere, jarraitu zuen artaldea Degurixara eramaten udaberri aldera.



Irazola baserriko leihoa. © MUA.



Irazola baserria. © MUA.



Urbiako larreak. © MUA.



Jose Luisen bi zakurrak, Luk eta Pinta. © Carlos Guerreiro.

Uribetxeberriatarrak errentero ziren. Irazolako nagusiek, Aztiriatarrek, bazituzten Gabirian beste etxe batzuk ere bai. Jose Luis ‘Txantxangorri’ ere errentero bizi izan zen beti.

Antolinek ez bezala, seme Damasok fabrikan, Papeleran, atera zuen bizimodua. Bera zen seme-alabetan zaharrena eta berak jarraitu irazolan, Gabiriako beste baserri bateko Bixenta Zabaletarekin ezkondua.

Bakarrik bizi zen irazolan

‘Txantxangorri’ izan zen irazolako hurrengo katebegia. Ez zen ezkondu eta bakar-bakarrik bizi zen baserrian, baina asko laguntzen zion izeba Terek. “Nik esaten nion Jose Luisi: zu orain dela berrehun urteko gizona zara! Hark, ardi-kontuak oso ondo, baina etxeko lanetarako ez zen gauza”. Maiatzean Urbiara joan behar zuenean ere, aurretik izeba Teresa, honen senar Rafa Guerreiro eta seme Carlosek hango txabola prestatzen zioten eta jan-edanak eramaten. Jose Luisek ez zeukan mendi-ibilgailurik eta haren anaia Jose Migelek eramaten zituen beste lagunok bere kotxean, Araitik gora.

Hogeita sei-zazpi urte zituela artzain bizimodua aukeratu zuen Jose Luisek. Hasieran Jaondoko txabola bat ibili zuen, Agustin Etxeberriarena. Garai hartan, negu partean, transhumantzia egiten zuen, ardiak Mutrikuko Galdonamendira eramanez. Gero Urbian txabola eman zion Partzoneriak, Zelaibixkarreko txabola, alegia, eta hor berrogeitaka urte eman zituen. Urtero-urtero joan zen goi haietara, sekula huts egin gabe.

Esan dugu Txantxangorri” ez zeukala mendi-ibilgailurik. Nola moldatzen zen batetik bestera ibiltzeko? Motor txiki bat zeukan, matrikula horia edukitzen duten horietakoa. Baina oinez asko ibiltzen zen, eta artaldea oinez eramaten zuen Legazpi barruan zelai batetik bestera. Pauso bizi ibili ohi zen; beharbada horregatik ipini zioten ‘Txantxangorri’ gaitzizena. Txori hori ere saltoka ibili ohi da, bixi-bixi.

Lehengusu Carlos Guerreirok esan zigunez, “Urbia oso inportantea zen Jose Luisentzat, toki horrek, horko giroak, poza ematen zion. Baina oso pozik ere ez zebilen. Garai batean ondo moldatzen zen Atagoitiko Andresekin, baina horrek utzi zion joateari... Bere adin moduko artzain denak utzita edo hilda daude... Baina hala ere Urbian nahi, eta behin hara ezker, bi-hiru aldiz baino ez zuen deituko”.

Urbiatik jaisten zenean, hasieran haserre eta petral xamar ibiltzen zen. Gero jartzen zen egoera berrira, eta maiatza iristen zenean berriro alaitu egiten zitzaion aldartea. Urbiatik ernai etortzen ziren ardiak eta Legazpiko zelaietan jaiotzen ziren arkumeak. Arkumea, hara hor Jose Luisen diru-sarrerara nagusia, sekula ez baitzuen gaztarik egin.

Azarotik aurrera, Legazpiko zelaietan

Urbiatik jaitzita, aurrena Brinkolako zelai batzuetan edukitzen zituen ardiak, adibidez Munttegin. Gero Goenaga, Mendizabal eta Mendiarrasbeko larreetan.

Herrian lagun handi bat eduki zuen hainbat urtetan zehar: Uztargillenekoa Paco Landa. Soziedadera joaten ziren elkarrekin. Biziolako Manuel Etxabe arotzak askotan lagundu zion. Azken urteotan tratu handia eduki zuen Brinkolan ibili ohi den Rafa Mugarza 'Morroi'-rekin.

Arkume batzuk etxean hiltzen zituen, jendeak eskatu egiten zion eta. Legez ez dago hori egiterik, baina ez zuen Ertzaintzarekin sustorik izan. Beste arkume asko tratanteek eramaten zituzten, eta inoiz dirua erreklamatzera joan behar izan zuten berak edo familiakoek. Artzaintzako alderdi batzuk ez dira batere bukolikoak.

Ez zen ezkondu eta kezkatuta omen zegoen zahartzaroak ekarriko zion bizi-martxarekin. Noski, ez zuen entzun ere egin nahi zahar-

etxe konturik. Osasun aldetik ez zebilen gaizki itxura batean. Fondan eta tabernetan kafea, alkoholik gabeko garagardoa eta Fanta hartzen zituen.

Hil zenean 168 buruko artaldea zeukan. Urbian jarduteko 150ekoa exijitzen du Partzoneriak, eta hango larreetan ibili ahal izateko Zerainen erroldatu zen oso aspaldi.

Egunero egiten zuen sartu-irtena Urbiako fondan, batez ere kafea hartzen zuelarik, eta oso lagunak zituen horkoak. Eskela ere ipini zioten Gara egunkarian, testu honekin: *Gabiriko Irazolan jaio eta hezia / Zelaibixkarreko txabolan igaroz udaldia / 51 urtez artzantza zure ogibidia / fondan egunero tertulia ta kafesnia / helduko den arren berriz udaberria / ez dugu ulertzen Txantxangorri gabe Urbia.*

Etxeko armairua ikusteko aukera izan genuen: zortzi-hamar kamixeta zeuzkan fondakoak. Horrek ere zeozer esan nahi zuen. Hark Urbia maite. Eta hantxe hil.

Digitalización de publicaciones



BURDINOLA, Legazpiko kultur errealitatean interesa duten pertsona guztiei sarbidea errazteko eta zabaltzeko asmoz, pixkanaka-pixkanaka digitalizatuz doa urteetan zehar gure kultura-ondarea ezagutzeko eta zabaltzeko ekarpen garrantzitsua egin duten argitalpenak. Digitalizazioa egin ondoren, Burdinolak Udalaren webgunean duen atalean gordetzen da.

BURDINOLA, en su ánimo de difundir y facilitar el acceso a toda persona interesada por la realidad cultural de Legazpi, va digitalizando las publicaciones que, a lo largo de los años, han supuesto una aportación significativa al conocimiento y la difusión de nuestro patrimonio cultural. Una vez realizada la digitalización, se procede a albergarla en la sección que Burdinola dispone en la web del Ayuntamiento.

"Milagro" en la ferrería (Relato)

Manolo Salmerón



Cruz de Mirandaola. © GSM.

Legazpi 1633

Pedro de Elorza es conocedor de que es un ser pragmático. Los avatares que le ha infligido la vida le han inducido a ello. Ahora que el ocaso se cierne sobre él, dada su longeva edad, rememora el hecho que marcó su vida y afianzó su fe hace cincuenta y tres años con el suceso "milagroso" que acaeció en la ferrería de Mirandaola, donde trabajaba de ferrón. Desde entonces no ha cesado de relatar y difundir, tal como él lo vivió, lo que ocurrió aquella noche del 3 de mayo de 1580. Recuerda que, ante la carga de trabajo que acumulaba la ferrería, decidieron laborar en un día festivo (celebración de la Santa Cruz) y obviaron descansar tal como obligaba la Iglesia. El proceso que realizaron en la reducción del mineral de hierro fue el habitual. Todo estuvo controlado. Sin embargo, después de horas de trabajo, solo obtuvieron una reducida masa de hierro en forma de cruz. Aturdidos por el cansancio, el calor del hogar y la ingesta de alguna que otra jarra de vino, la sorpresa cundió en ellos ante semejante hallazgo. Convencidos de que era un castigo divino por no haber respetado la festividad del día, acordaron atemorizados guardar silencio arro-

jando la masa de hierro a un escorial cercano con la intención de hacerla desaparecer, dando por concluido el hecho que habían vivido. Pedro de Elorza no quedó conforme con esta precipitada acción. La recuperó y mandó guardar en un arca, en Elorregi. Él está seguro de que el poder divino estuvo presente la noche del "milagroso" suceso y es tal su convicción que, desde entonces acá, ha sido su fiel propagador. Convenció al párroco de Legazpi para que la trasladase a la parroquia, y actualmente se la venera en la ermita de san Miguel. Si bien, en su fuero interno, guarda con cerrazón el estado en el que se encontraba y descarta de su mente que los vapores etílicos habían operado en él la noche del suceso.

No corren vientos propicios para las ferrerías, no son los de antaño, piensa Pedro. Legazpi ha dado un cambio estructural: la agricultura ha comenzado a ganarle terreno a la tradicional industria del hierro. Fue testigo de cómo se introdujo el cultivo del maíz a comienzos de siglo a través de la privatización de terrenos comunales y del avance de su cultivo en montes antes reservados para la obtención de carbón vegetal. Su siembra necesitó una mayor roturación de tierras, disminuyendo los espacios forestales, lo cual permitió que el caserío se convirtiera en una entidad capaz de alimentar a sus moradores. Antes, muchos caseros trabajaban a tiempo parcial en las ferrerías o transportando carbón. Actualmente, se han librado de la dependencia del hierro; priorizan la roturación de montes para el cultivo. Como era de esperar, han surgido tensiones entre los ferrones y los caseros por el control del suelo que, por norma, se dirimen en los juzgados, convirtiéndose en verdaderas batallas campales. Recuerda que algunos casos graves han terminado en la Real Cancillería de Valladolid. Curiosamente, él también ha tenido

pleitos defendiendo los límites de sus tierras frente al aprovechamiento forestal de las ferrerías. Aun así, sus intereses económicos dependen de ellas —por legado familiar—, ya que participa en el proceso de aprovisionamiento (leña, carbón, mineral de hierro, etc.) y es propietario rentista de varias ferrerías.

Su inquietud le hace partícipe e instigador de los estudios y ensayos que se realizan en las ferrerías. Se están incorporando novedosas tecnologías hidráulicas para abaratar la producción del hierro y contrarrestar el avance de los agricultores. Sin embargo, Pedro constata que este proceso depende totalmente del carbón vegetal, y el avance de los agricultores ha encarecido esta materia prima. Han reducido los montes de bosques disponibles, y las ferrerías deben optimizar el consumo de combustible con hornos más eficientes para que puedan ser competitivas.


Esta mañana se ha levantado con prontitud, se ha aseado con calma y ha atusado con detenimiento su poblada barba. Debe estar a las once de la mañana en la parroquia. Juan de Garitano, el párroco, quiere hablar con él. Al llegar la “serora”, le ha comentado que debe aguardar; se ha tenido que ausentar para administrar el viático a un enfermo en estado terminal. Ha sido una llamada

urgente. No se le ha hecho larga la espera; así le parece a Pedro, quien contempla desde la cabecera de la iglesia cómo avanza hacia él la obesa silueta del vicario, acompañado por un monaguillo. El párroco le insta a que le siga a la sacristía y allí, sin más preámbulos, le dice lo siguiente:

—Pedro, he recibido un comunicado del obispado de Pamplona. Notifica que el Sr. Obispo, Pedro Fernández Zorrilla, realizará una visita pastoral en nuestra comarca¹; se alojará en la casa cural de Villareal de Urrechua el mes de septiembre. He contactado con el párroco y los días y la duración de la visita están pendientes de concretar. Le informo de ello porque sé el interés que muestra en que se reconozca que la Cruz de Mirandaola es el resultado de un hecho milagroso. Por tanto, hay que considerar qué tipo de acción podemos llevar a cabo para sacarla del ostracismo en el que se encuentra.

—Es una grata noticia, comparto su opinión. Es una oportunidad única la que se nos brinda. De entrada, le diré que nuestra labor la debemos en-

¹La Diócesis de Pamplona ejercía jurisdicción sobre casi toda la provincia, administrada a través del Arciprestazgo de Guipúzcoa. Este incluía la mayoría de las localidades del interior y la zona oriental.



Ferrería de Mirandaola.
© MSF.



Milagro de la Cruz de Legazpia, pintura sobre tabla. © San Telmo Museoa, Donosti.

focar en dos direcciones. La primera, conseguir que la Iglesia reconozca el suceso como un milagro. A partir de ahí, la exposición y culto a la Cruz de Mirandaola tiene que ser una realidad. Es un deseo unánime, el cual anhelan los legazpiarras. La segunda, en el momento actual la crisis golpea las ferrerías; es necesario que este reconocimiento reivindique y recupere la memoria de nuestro valle: su pasado ferrón. Fue el hierro el que forjó y dio ser al pueblo de Legazpi. Por tanto, tenemos que crear una comisión de vecinos formada por los antiguos ferrones que vivieron el milagro y permanezcan con vida, familiares de los fallecidos que puedan testificar lo que escucharon de sus padres, representantes de los linajes locales vinculados con la industria del hierro, autoridades locales y, lógicamente, la representación eclesial tiene que estar presente. Por cierto, los clérigos involucrados deben ser expertos y experimentados; nos van a examinar al detalle. —Se toma un paréntesis de silencio para proseguir. —En resumen, tenemos que crear una comisión de vecinos fuerte, capaz de reunir y estudiar todos los pormenores que esta acción conlleva. No podemos olvidar que nos sometemos a un juicio eclesiástico.

El párroco le insta a que le siga y, en el exterior del recinto eclesial, bajo un luminoso sol, le dice:

—Tenemos dos meses largos... Aun así, no debemos bajar la guardia.

—Tiene razón. No se nos puede escapar ningún detalle; es mucho lo que está en juego. —Pedro se queda pensativo, cambia de registro y añade. —Por cierto, de los ferrones presenciales del “milagro” solo quedamos dos: Juan de Albi-sua y yo. Estaremos presentes.

El párroco, Juan de Garitano, observa a hurtadillas a Pedro de Elorza. Lo ve firme en sus decisiones y su aguerrida imagen transmite confianza. Está convencido de que es la persona idónea para liderar al grupo que se forme para reivindicar el reconocimiento milagroso de la Cruz de Mirandaola.

—Creo que el Sr. Obispo no se negará a recibirnos; formamos parte de su diócesis. —Añade, finalmente, Pedro.

Sacralización de la Santa Cruz

El Sr. Obispo de Pamplona es un destacado prelado de cincuenta y cuatro años que ocupó la cátedra hace seis. Él, personalmente, ha asumido los decretos que la Iglesia Católica fijó en el Concilio de Trento². Acata convencido las mejoras que aporta y desea aplicar en su diócesis las reformas que se acordaron. No le está resultando fácil esta misión. Está visitando las villas y comprueba la reacción negativa que provoca, en clérigos y feligreses, cualquier cambio que modifique la tradicional manera de profesar la religión católica. La visita a Urretxu forma parte de la programación que está llevando a cabo en diferentes parroquias para introducir los cambios, conocer a sus fieles, supervisar las administraciones y fortalecer la vida espiritual de las comunidades.

Ya se encuentra el Sr. Obispo en Urretxu, trae una agenda apretada, y pasado mañana, 30 de septiembre, recibirá a los vecinos de Legazpi. Se lo ha vuelto a recordar al párroco, durante el almuerzo, un tanto abstraído, mientras degustaba unas cremosas y dulces natillas. Todo un éxito de su cocinera, piensa el párroco, mientras

²El Concilio de Trento (1545—1563) fijó las bases de la Iglesia Católica moderna hasta mediados del siglo XX.

subraya que es goloso el Sr. Obispo. Este ha proseguido con el tema de la petición que han cursado los vecinos de Legazpi y, sin omitir ningún juicio valorativo, dada su capacidad analítica, muestra su extrañeza por la singularidad del caso que se expondrá. Así se lo ha hecho saber al párroco de Urretxu.

Es media mañana y en la casa cural de Urretxu hay una actividad inusual; va a tener lugar el proceso por el que se dilucidará el carácter milagroso o no del suceso acaecido en la ferrería de Mirandaola. El Sr. Obispo se ha hecho acompañar por dos religiosos dominicos: los tres se hallan guarnecidos tras una amplia mesa, presidiendo el acto. Frente a él contempla a los vecinos de Legazpi; forman una numerosa comisión encabezada por Pedro de Elorza. Hay expectación en la sala y la inquietud que muestran los vecinos es bien fácil de constatar.

Justo en el momento en que se inicia la causa, el párroco de Legazpi se levanta de su asiento portando la Cruz, se dirige hacia la mesa en la que se encuentra el Sr. Obispo y la deposita en ella para que la tenga en sus manos y emita su juicio. Este queda impresionado por la forma de la cruz que muestra la masa metálica y el hecho de que, pese a ser hierro forjado, tenga una estructura tan definida. A continuación, se inicia el proceso en el que se da paso a las declaraciones de los testigos. Pedro de Elorza es el primero en intervenir y, además, una vez que ha terminado su exposición, hace de introductor al resto de testigos. Todos ellos están contestando con firmeza y convicción a las preguntas que les formulan el Sr. Obispo y los dominicos. El sentimiento de pertenencia como hecho milagroso aflora con rotundidad en sus declaraciones.

Una vez terminadas las declaraciones de los testigos, las investigaciones oportunas y la inspección de la reliquia, los religiosos dominicos que han participado, junto con el Sr. Obispo,



Acto de veneración a la reliquia de la Santa Cruz de Mirandaola. © Fondo Burdinola.

han redactado en un escrito que lo sucedido en Mirandaola el 3 de mayo de 1580 fue un suceso milagroso, otorgando autenticidad oficial al milagro, autorizando su culto público. El escrito concluye así: *«No hay causa natural que explique cómo de tanta materia salió tan pequeña señal, ni cómo el fuego dio forma de cruz a lo que debía ser una masa informe».*

Finalmente, el Sr. Obispo promulgó un decreto por el que autorizaba a dar culto en la parroquia de Legazpi a la Cruz y concede indulgencias a quienes lo hicieran.

El retorno de la Santa Cruz a Legazpi

Con júbilo ha recibido la comisión de vecinos legazpiarras el fallo que han emitido el Sr. Obispo y los frailes dominicos. Han conseguido el reconocimiento oficial. Ahora se prestan a volver a Legazpi. Con prontitud forman una comitiva encabezada por Pedro de Elorza y el párroco, Juan de Garitano, para el traslado solemne de la Cruz, desde la casa cural de Urretxu hasta la Parroquia de Nuestra Señora de la Asunción. La Cruz, mostrada públicamente, regresa a Legazpi no solo como un objeto religioso, sino como el máximo símbolo de identidad de la villa. Las familias ferronas de Legazpi han quedado satisfechas del deber cumplido.

Legazpiko hegazti-izen batzuk (II)

Aitor Azpiazu Ugalde

Artikulu hau izen bereko beste artikulu baten jarraipena da. Izan ere, 2021 urtean, Legazpi eta Goierriko hegazti-izen batzuen inguruan artikuluak idatzi genuen¹. Harrezkero, hegaztien inguruko izen eta informazio gehiago jasotzeko moduan izan gara, batean eta bestean. Horrela bada, artikulu hartako informazioa osatu egingo dugu, izen gehiago aipatuz, eta baita ere zuzenketa bat proposatuz, alegia, sai zuriaren izen goierritarraren inguruan.

Hegazti-izenen iturria lantzen ari garen Goierri eta Tolosalde hegoaldeko hiztegia² da. Hortaz, Legazpiko izenen ondoan, Goierriko beste leku-etakoak eta Tolosalde hegoaldeko herrietakoak agertuko dira, denak ere continuum linguistiko bereko puskak baitira.

Putreak eta sai zuriak

Iberiar penintsulan diren lau putreen artean, bi agertu ohi dira Legazpi eta Goierriko zeruetan: sai arrea eta sai zuria. Sai arrea, (*Gyps fulvus*), **Buitre/buitrea** forman jaso dugu Brinkola, Aztiria eta Idiazabalen. Aldaerak denak ere antzerakoak dira, **Buetra/buetrea** (Segura, Ursuaran eta Zegama), **Putre/putrea** (Berastegi)...

Gure zeruetan agertu ohi den beste hegaztia, askoz urriagoa bada ere, sai zuria da (*Neophron percnopterus*). Luzaroan kezkatuta ibili ginen, hegazti honen izen goierritarra azaltzen ez zelako. Batean eta bestean galdetu eta ez agertzen. Hala bada, arazo hori aipatu genuen aurreko artikuluan³. Baina, inondik espero gabe, izen hau agertu egin da, non eta Segu-



Miruzurie hegan Mirandaolako zeru gainetan, (*Neophron percnopterus*). (AAU, 2025-05-03)

ran, Ermasoro baserrian. **Miruzuri/miruzurie** da. Hitz hau bat dator, gainera, ondoko eskualdeetan jaso denarekin, bai Arantzazun⁴, bai Bergara aldean⁵ ere.

Zerrenda osatzeko falta zaizkigun beste bi espezieak ugatza (*Gypaetus barbatus*) eta sai beltza (*Aegyptius monachus*) dira. Bi hauen izenik jasotzerik ez dugu izan. Ugatza aspaldi luzean egon da galdua Goierri aldean, harik eta 2024 urtean Aralar aldean bikote bat finkatu arte. Sai beltza berriz, ez da gure lurreko hegaztia izan. Baina Pirinio aldean berriz ere sartua izan denez, gure zeruetan noizbait agertzea ere ez da ezinezkoa.



Enarea, Kataluniako Poble Nou aldean, (*Hirundo rustica*). (AAU, 2022-04-17)

¹AZPIAZU UGALDE, A. 2021: 4-6.

²AZPIAZU UGALDE, A. 2026.

³AZPIAZU UGALDE, A. 2021: 6.

⁴MIRUSURI. (IZAGIRRE, K. 1994: 178).

⁵MIRUZURI. (ELEXPURU, J.M. 2004: 433).

Enara eta azpizuria. Sorbeltza

Enara arrunta, (*Hirundo rustica*), jende askok ezagutzen duen hegaztia da. Gainera hegazti estimatua da. Goierriaraz bere izen zabalduena **Enara/enarea** da. Horrela jaso dugu behintzat Brinkola, Telleriarte eta Barbari aldean. Baina han eta hemen, beste izen bat ere agertu ohi da: **Txirringillo/txirringilloa** Lazkaon azaldu da, eta Berastegin berriz **Txirringillu/txirringillue**.

Bestetik, enara azpizuria ere badugu, (*Delichon urbica*). **Azpizuri/azpizurie** deitzen zaio Brinkola eta beste leku batzuetan. Legazpin jaso gabekoa berriz sorbeltz arruntaren izena da, (*Apus apus*). Hegazti hau izatez enaren familiakoa ez bada ere, antzerako biziguneak eta hegakerak ditu. Lizartza aldean **Betxiku/betxikue** esaten zaio.

Gailupa

Izendapen ezberdinak ditu gailupak (*Pyrrhula pyrrhula*) Goierri aldean. Izan ere, hegazti mota batzuk ikertutako eremu osoan (Goierri eta Tolosalde hegoaldea), izen berberak dituzte, txantxangorria eta txepetxarekin gertatzen den moduan. Baina beste hegazti batzuen izendapenek aniztasun handia agertzen dute. Hona hemen gailuparen adibideak:

Telleriarten **Pittin-gorri/pittin-gorrie** da, Ormaiztegin **Papogorri/papogorrie**, Ezkion **Azpigorri/azpigorrie**, Idiazabalen **Julio/julioa**, Ursuaranen **Lizartxori/lizartxorie**, Tolosaldeko Alegian **Ama-Birjin txori/Ama-Birjin txorie**, Altzon **Muxiketxori/muxiketxorie**. Zergatik hegazti batzuen izendapenak hain anitzak eta besteenak ez?

“Abutardea” eta “frankoliñe”

Goierriko herri askotan gertatzen den kontua da hau, batez ere ehiztari giroetan: hegazti jakin batzuen izenak “nahastu” egiten dira. Hemen bi kasu aipatuko ditugu. Bata, “abutardea”/“sisoia” hegaztiena. Bestea berriz, “frankoliñe” delakoa-rena. Gure inguruan ez dira bertako hegaztiak, ez basoilo txikia (*Tetrax tetrax*; espainiera arruntan “Sisón común”), ezta ere basoilo handia



Basoiloa, Zamorako Villafáfila aldean, (*Otis tarda*). (AAU, 2019-08-18)

(*Otis tarda*; espainiera arruntan “Avutarda común”). Bi hegaztiak itxuraz antzekoak dira, gorputz egituraz eta lumajez, baina basoilo handia bestea baino askoz ere handiagoa da.

Basoilo txikia pasean pasatu ohi zen lehen, bestea ez. Ba Goierriko ehiztariak basoilo txikiari “abutardea” esaten diote, nahiz eta -espainieratik ekartzen hasita- “sisoia” izan beharko zukeen. Hortaz, Goierriko ehiztari giroetan “abutardea” aditzean *Tetrax tetrax* hegaztiarengan pentsatu behar dugu.

Antzerako gauza gertatzen da “frankoliñe” hegaztiarekin ere. Ehiztariak hala izendatzen dutena, “Atalarra” esaten da euskara batuan (*Burhinus oedicephalus*). Hau gurean gehienbat paseko hegaztia izan da. Baina espainieraz “Francolín” esaten diren hegaztiak oso ezberdinak dira, eper antzerakoak direlako.



Okil-txorie, Kastillerriko Cantalejo aldean, (*Sitta europaea*). (AAU, 2022-07-03)

Batetik espainierazko “Francolín ventrinegro” dugu, euskara batuan “Frankolin” deitua eta Ekialde Hurbilean bizi dena (*Franco-linus franco-linus*). Beste frankolin mota “Francolín biespolado” dugu, (*Pternistis bicalcaratus*), Maroko aldean bizi dena. Hortaz, Goierriko ehiztari giroetan “frankoliñe” aditzean *Burhinus oedice-nemus* hegaziarengan pentsatu behar da.

Beleak

Goierrieraz “belea” esaten denean, bi hegazti mota ezberdin adierazten dira. Batetik, *Corvus corone* (euskara batuan “Belabeltza” deitzen dena) eta bestetik, *Corvus corax* (euskara batuan “Erroia” deitzen dena). Bi hegazti hauek itxuraz tankerakoak dira, baina tamaina eta bizilekuak ezberdinak dituzte. Lehen hegazti mota oso ugaria da, bigarrena berriz urria.

Hala ere, goierrierazko hiztun arruntak ez ditu bi hegazti hauek bereizten. Izadiaren ezagutza handiko pertsonak izan ohi dira bi mota hauek ondo bereizten dituztenak. Idiazabalen jasotakoaren arabera, “erroia” **Udabela/udabelea** da eta “belabeltza” berriz **Bela/belea**. Saletxeren lanean aipatzen zaigun **Okelabela/okelabea** horrek “erroia” izan behar du⁶.

Ez okila, ez sagua

Gure inguruan, garrapoa deitzen den hegaztia ere bada, (*Sitta europaea*). Idiazabalen, Seguran eta Zegaman **Okil-txori/okil-txorie** izena jaso dugu berarentzat. Seguran eta Berrobin berriz **Okil-txori txiki/okil-txori txikie**. Hegazti honek okilen nolabaiteko itxura dauka, eta zuhaitzak oso maite ditu, baina ez da okila: beste familia batekoa da. Esan dezagun baita ere Altzo aldean



Gabirai-txikie, Aragoako Bujaraloz aldean, (*Falco tinnunculus*). (AAU, 2019-07-14)

Txori-urdiñ/txori-urdiñe izena jaso dela.

Zuhaitzean ibili ohi den beste hegazti bat (oinez behetik gora ibiltzen delako enborrean zehar), Gerri-txori arrunta izaten da, (*Certhia brachydactyla*). Bere izena Lazkaon **Sagutxori/sagutxorie** da. Eta seguru asko ere, Telleriarte aldean ere bere izena **Sagutxori/sagutxorie** izango da⁷.

“Gabirai-txikie” eta “Gabiraia”

Brinkola aldean jaso ez badugu ere, Goierri eta Tolosalde hegoaldean oso izen arrunta da **Gabirai-txiki/gabirai-txikie**, euskara batuan “Belatz gorria” esaten dena (*Falco tinnunculus*). Hegazti hau belatz mota bat da, Falconidae familiakoa.

Bestetik, euskara batuan “Gabiraia” deitzen den hegaztia dugu, (*Accipiter nisus*). Hegazti hau arrano mota bat da, ugari samarra, Accipiter familiakoa, eta hortaz ez da Falconidae bat. Hegazti honen izena **Gabirai/gabiraia** da Idiazabal eta Zegaman, **Gabilai/gabilaia** Ormaiztegin, **Gabiroi/gabiroia** Lazkaon.

Ikusten dugunez, “TXIKI” hitzak familia ezberdinetakoak diren bi hegazti bateratzen ditu, Falconidae bat eta Accipiter bat.

“Work in progress”: Oraindik argitu gabeko izenak

Hegaztien inguruko ikerketa aurrera doa, eta horregatik gure lanak izen berriak jasotzea da,

⁶SALETXE, 1993: 133.

⁷Saletxe berak jasoa dakar hegazti izen hau, ohar batekin gainera. “**SAGUTXORIE** (Arbola gerrian igotzen den txoria)” (SALETXE, 1993: 136). / Saletxerekin gertatzen den betiko auzia zera da, Telleriarte kanpokoak ziren hitzak ere agertzen direla bere hitz bilduman, bai kultismoak eta baita kanpoko herri-hizkeretako atalak. Saletxeren iturrien eta fidagarritasunaren gaia beste batzuetan ere aipatu izan dugu. (AZPIAZU UGALDE, A. 2009: 18-19 & AZPIAZU UGALDE, A. 2016: 3-8).

zalantzazkoak argitzen saiatzea, identifikazio egokiak egitea... Euskal Herriko beste inguruetan jasotako hegazti izendapenak oso baliagarriak izan ohi dira, gehienetan, lan hauetarako. Baina gure kasuan eta gauzak erabat konfirmatuko badira, bertako berriemaile egokien baieztapen borobilak behar dira.

Horrela, guretzako oraindik ere “arazotsuak” diren hegazti izen batzuk aipatuko ditugu, ikerketa gehiago behar dutenak argitze aldera:

AIZKOR-TXORIE. Zegamako Pio Berasategiri

jasoa. Harkaitz-txoria (*Tichodroma muraria*) ote da? APATXORIE. Ez dakigu zein hegazti mota ote den. (Lazkaon jaso).

AZPIURDIÑE. Brinkolan jaso. Ez dakigu zein hegazti mota ote den.

LEPATXURIE. Ez dakigu zein hegazti mota ote den. (Lazkaon jaso).

LUR-TXORIE. Seguran eta beste toki batzuetan jaso. Habia lurrean egiten du. Hegatxabal arrunta (*Alauda arvensis*) edo bere familiakoren bat ote da ba?

OTATXORIE. Idiazabalen eta Zegaman jaso. Pitxartxar burubeltza (*Saxicola torquatus*) ote da?

Bibliografia eta oharra

Artikulu txiki eta mugatu honek dituen ezaugarri batzuk aipatu beharko ditugu, bukatu aurretik:

- Xabier Elortza idiazabalدارra eskertu nahiko genuke, sai zuriaren izenaren inguruko argibideak emateagatik.
- Hegaztien izen estandarizatuak eta izen zientifikokoak LARRAÑAGA (1996) eta SVENSSON & MULLARNEY & ZETTERSTRÖM (2010) iturrietatik jaso ditugu.
- Testua gehiegi ez betetze aldera, herri bakoitzean nori eta noiz jaso zaion ez dugu azaldu.
- Jasotako hegazti izenak hemen agertutakoak baino askoz ere gehiago dira. Artikulu honetan (eta aurrekoan) azaldutako hegazti izenak hainbat irizpideren arabera aukeratzen ditugu, beti ere izen aberastasuna eta korapilo semantikoak adieraziz.
- Bestetik, artikulu honetan agertu diren hegaztiak badituzte izen-aldaera gehiago ere, idatzi ez ditugunak. Izan ere, oraindik aldaera batzuek konfirmazioa behar dute (identifikazio okerrik ez izateko) eta beste batzuk berriz ere egoki konfirmatu beharrekoak dira, izen horiek jasotako lekuetakoak bertakoak direla jakiteko, eta ez ondoko herrietakoak.
- Lan honen “work in progress” izaera azpimarratu nahi dugu: asko dago galdetzeko, asko ikertzeko, asko konparatzeko, bibliografia asko irakurtzeko eta lantzeko, bai Euskal Herrian, bai kanpoan. Artikulu hau gure inguruko aberastasunaren izpitxo bat da, besterik ez.

— Erabilitako bibliografia:

AZPIAZU UGALDE, AITOR

- 2009. *Saletxeren ondare bereziarena*. In “Txinpartak”, 17 alea. Legazpi. Burdinola.
- 2016. *Saletxe, hogei urte eta gero*. In “Txinpartak”, 32 alea. Legazpi. Burdinola.
- 2021. *Legazpiko hegazti-izen batzuk*. In “Txinpartak”, 47 alea. Legazpi. Burdinola.
- 2026. *Gipuzkoako Hegoaldeko Euskara. Goierri eta Tolosalde hegoaldean jasotako lexikoa eta etnografia gaiak*. (Argitaratu gabea)

ELEXPURU, JUAN MARTIN

- 2004. *Bergara aldeko hiztegia*. Bergara. Bergarako Udala.

IZAGIRRE, KANDIDO

- 1994. *El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes*. Oñati. Gipuzkoako Foru Al-dundia & Oñatiko udala.

LARRAÑAGA, JON

- 1996. *Euskal Herriko fauna (ornodun lehortarrak)*. Usurbil. Elhuyar.

SALETXE; MARTIN UGARTE AZURMENDI

- 1993. *Legazpi barrutiko itzen bilduma*. Legazpi. Legazpiko udala.

SVENSSON, LARS & MULLARNEY, KILLIAN & ZETTERSTRÖM, DAM

- 2010. *Guía de aves. España, Europa y región mediterránea*. Ediciones Omega.

Donación arqueológica a la UPNA de Balbino García de Albizu




© Navarra red. Revista digital de Navarra

La Universidad Pública de Navarra (UPNA) ha formalizado la recepción de una valiosa donación arqueológica de manos del investigador y etnógrafo Balbino García de Albizu Jiménez (Donostia, 1943). El conjunto, que se denominará “Colección Arqueológica Balbino García de Albizu”, reúne piezas de piedra y cerámica halladas entre 1984 y 2004 en el Monte Limitaciones de Améscoa y la Sierra de Urbasa. Sobre ello, Balbino nos transmite lo siguiente:

“A lo largo de años, de andadas y de miradas, habíamos reunido una cantidad grande de materiales que entendíamos elocuentes para desvelar el largo pasado de Améscoa y Urbasa. Y pretendíamos que fueran estudiados (no almacenados) por alguien capacitado, los resultados dados a conocer (no metidos en un cajón) y los materiales expuestos, si alguien estaba dispuesto a hacerlo de forma didáctica en el propio territorio donde se hallaron. Hemos conseguido esos requisitos y hemos firmado el convenio de cesión de los mismos. Y vamos a colaborar (teletrabajo) en los dos años de tarea del proyecto aportando nuestro conocimiento, apuntes, memoria y material fotográfico disponible. Lo hemos conseguido y queríamos contártelo.”

Nuestra asociación Burdinola tiene la suerte de haber podido compartir con Balbino salidas, consultas e intercambios culturales a lo largo de su dilatada trayectoria. Conocedores de su gran capacidad humana, el equipo de la revista *Txinpartak* se congratula por el convenio que ha alcanzado y le felicita por su logro.



TIEMPO DE DESTRUCCIÓN

Molino Urtatzaolatxiki



© MUA.



© MUA.



© MUA.



© GSM.



© MUA.

Bazkide egin zaitetz! Hazte socio/a!

IZENA.....

Nombre

HELBIDEA.....

Dirección


TELEFONOA..... **E-MAIL**

Teléfono

K.K. (20 zenbaki).....

C.C.

URTEKO KUOTA / Cuota anual: 40 €




Burdinolaren argitalpen guztiak Udalaren webgunean topatuko dituzu, bai kontsultatzeko, bai deskargatzeko.

Todas las publicaciones están disponibles para su consulta o descarga en la página web municipal.



www.legazpi.eus/burdinola



BURDINOLA ELKARTEA

Latxartegi 10, behea. 64. p.k. 20230 Legazpi
burdinolaelkartea@gmail.com

